


Gizarte eraldaketarako
**hezkuntza
estrategia**



mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa



“Mundua ez zaigu eman soilik kontenplatzeko, eraldatzeko baizik” J.M. Arizmendiarieta

Aurkibidea

1.	Testuinguruaren eta egoeraren analisia	03
2.	Aurrekariak	05
3.	Helburua	07
4.	Mundukideren GEH proposamena elikatzen duten ikuspegi eta elementuak	09
5.	Xede publikoa / aliantzak	13
6.	Jardute ildoak	15

Mundukide Fundazioa
Zarugalde, 30 | 20500 Arrasate-Mondragón
Tel. 943772010
www.mundukide.org

Arrasate, 2019ko maiatza



1. Testuinguruaren eta egoeraren analisia

Arizmendiarrietak zioenez, “mundua ez zaigu eman soilik kontenplatzeko, eraldatzeko baizik”, eta ezin da ulertu mundua, eta are gutxiago Mondragon esperientzia kooperatiboa, proiektuaren bokazio eraldatzaile hori kontuan hartu barik. Hala, proiektuaren hiru dimentsioez mintza gaitezke; 1: jendearen ongizaterako aberastasuna sortzea; 2: enpresa eta enpresaren funtzio soziala demokratizatzea, eta horiek biak baliagarri izatea 3: inguruneari garapen komunitarioa emateko.

Arrasate inguruko GKEen eta kooperatiben eskutik sortu zen Mundukide, esperientziaren muga geografikoak atzean utzi eta lan kooperatiboaren elkartasuna aktibatzen. Hori dela eta, Mundukideren misioa honelaxe zehaztu zen: **Hegoaldeko herriein** lankidetzan jardutea, esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatuz, inplikaturako aldeek autokudeatutako garapen integrala sustatzeko; eta, horretarako, lan kooperatiboaren munduaren elkartasuna aktibatzea, Mundukideren balioetan eta printzipioetan oinarrituz eta balio eta printzipio horien gidaritzapean.

2018-2021 ziklorako onartutako plan estrategiko berrian, ikusi zen arlo honetan jauzi kualitatiboa egin beharra zegoela, ondoko paragrafoetan xehatzen ditugun zenbait aspektuk hartaratu.

1 | 2016ko Mondragon kongresua: Aho batez onartua izan zen ETORKIZUNeko MONDRAGON izenburuko ponentzian, hiru zatietako batek balio kooperatiboaren indarberritzeaz ziharduen. Hain zuzen ere, zati horretan nabarmentzen dira aro berrian azpimarratu nahi diren balio eta praktika kooperatiboak. Zehazki, honako hauen zentzua eta praktika indartu nahi dira: (auto)exijentzia eta erantzun(kide)tasuna, elkartasun arduratsua, interkooperazioa eta eraldaketa soziala. Azken horri dagokionez, “ondarearen” ideia, etorkizuneko belaunaldiei utzi beharrekoaren ideia nabarmentzen da.

2016ko Mondragonen mandatu berri horrek baterako hausnarketa bultzatu du taldeko zenbait kooperatibatan. Beren DNAn eta praktikan eraldaketa sozialerako ekintzak eta jarduerak zeuzkaten kooperatiba horiek, kongresuaren ostean, artikulaziorako eta ekintzarako baterako plataformak sortzen ari dira, bere ekintzen bitartez eraldaketa soziala areagotzeko.



2 | Garapen agenda globala. : 2015ean, Milurtekoko Garapen Helburuen aroa amaitutzat eman ostean, Nazio Batuek eta beste eragile global batzuek Garapen Iraunkorrerako Helburuak zehaztu zituzten, 2030 agenda bete eta pobrezia desagerrarazteko, klima aldaketari aurre egiteko eta pertsona guztientzat bakea eta oparotasuna bermatzeko.

Hitzarmen berri honen ezaugarri nagusia garapen sostengarriaren hiru zutabeen transbertsalitatea izan da: zutabe ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa, kontuan harturik bere aplikazioaren unibertsaltasuna eta integraltasuna, helburuen artean ez baitira besteen aldean garrantzitsuagoak diren helburuak zehazten.

Nabarmentzekoa da helburu berri horietan, aldez aurreko lorpenez gain, alor berriak jasotzen direla, hala nola klima aldaketa, desigualtasun ekonomikoa, berrikuntza, kontsumo sostengarria eta bakea eta justizia, beste lehentasun batzuen artean.

Garapen Iraunkorrerako Helburuen beste nobedade aipagarri bat zera da: ekonomia sozial eta solidarioaren aktoreen rola garapen sozioekonomikorako eta eraldaketarako eragile gisa sartzea, baita helburuok lortzeko erantzunkidetasunean sartzea ere. Aspektu horiek biak, bai tematikoak bai enpresak garapenaren eragile gako gisa nabarmentzearena, oso ondo egokitzen dira Mundukideren lan egiteko modura eta lan kooperatiboaren munduaren elkartasuna aktibatzeko misiora.

3 | (H)ABIAN. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) estrategia berria. : Eraldaketa sozialerako hezkuntza arloan egindakoa birpentsatzeko aukera gisa ikusi du Mundukidek estrategia berri hau.

4 | GEH proposamenaren heldutasuna Mundukide barruan. Estrategikoaren lanketa prozesuan, arlo honetan egiten ari zena egituratzeko beharraz eta motibazioaz hausnartu da, proposamen propioa edukitzeko, azken urteetan egindako bidean ikasitakoan oinarrituz eta Mundukiderekin hasieratik lan egin duten herri eta erakundeetatik atera daitekeen aldaketa eta ikaskuntza indar guztia intuituz.

5 | Mundukideren inguruneko zenbait kooperatibak harremana sakontzeko borondatea daukate, sortzen diren aldaketak sakonagoak izan daitezen eta, lankidetzak programak eta Mundukideren funtzionamendua COFIPen bidez babesteaz gainera, lokarri sendoagoak egin ahal izateko bai tokiko eraldaketarako bai eraldaketa globalerako.


Horren guztiaren ondorioz, 2018. urte honetan GEH estrategia propio bat lantzeko premia zehaztu da, aspektu horiek kontuan hartuz, eta interkooperazio sistemaren bidez presente eta artikulaturik dagoen ikuspegi hezitzaile eta eraldatzailea balioan jarritz.



2. Aurrekariak

Egia bada ere Mundukide hasi zenetik, eta azken urteetan are eta intentsitate handiagoz, gizarte eraldaketarako hezkuntza ekintzak egin direla, agerian dago ekintza horiek intuiziotik abiatu direla eta noizbehinka landu direla.

Gure ustean, Mundukideren eta inguruneke eragileen interkooperazio sistema, eremu balioduna eta egungoa da lanean jarraitzeko. Hala ere, gure ustez jauzi kualitatibo bat egin beharra dago, eta epe luzeragoko eraldaketa ibilbideak eraikitzen eta zehazten saiatu. Gure xedea da ibilbide horietan Mundukidek amesten duen gizarte autokudeaturako aldaketak egin ahal izatea, alor pertsonaletik alor komunitariora pasatuz, Mondragoneko esperientzia kooperatiboaren begiradaren oinarrian dagoen analisi kritikotik abiatuz.



Mundukidek, interkooperazio sistemaren bidez, 19 urte daroma lanean, alde batetik, hegoaldeko herrialdeetan tokiko garapen prozesuak aurrera ateratzen lagunduz eta sustatuz; horretarako, gaitasun indibidual eta kolektiboak indartzeko lanean dihardu, kooperatiba arloko egitasmo sozioekonomikoak gidatuz, eta bestetik, gure gizartean aldaketak sustatuz.

Hezkuntza kooperatibekiko harremanek –izan unibertsitate arlokoak izan derrigorrezko hezkuntzakoak– eta produkzio sektoreko kooperatibekin, pertsona boluntarioekin, LANKI lankidetzaren ikertegiarekin eta beste GKEE batzuekin dituen harremanek hasieratik funtzionatzen ari den sare bat osatzen dute. Harremanen sare hori koordinatu egiten da kanpainak, proiektuak, boluntario kanpainak, praktikak eta abar egiteko.

Sistema horretatik bertatik egin nahi da, hain zuzen ere, jauzi kualitatiboa ekintza horietan, orain arte gertatu den baino gehiago batu daitezzen, eta bailaratik edo ingurune hurbilenetik haragoko garapen komunitario bat bilatzen duen gizarte aktibo bat izateko.

Hurbilketa hori egiteko, eta eskubideen ikuspegia, ikuspegi globala eta tokikoa, genero ikuspegia eta ingurumena zaindu behar diren ikuspegia hedatzeko, azken urteetan askotariko ekintzak egin dira, erakusteko ekonomia sozialak, MDKDK lan egiten duen herrialdeetan (Mozambike, Brasil, Kolonbia, Mexiko eta Euskal Herria) forma eta konkrezio desberdinak hartzen baditu ere, errealitate bera osatzen duela, erronka komunak dituela alde guztietan eta estrategiak partekatu egin daitezkeela helburuak lortzeko.

Hona hemen nabarmentzeko moduko batzuk:

Patronatuak egindako bidaiak eta itzuleran egindako jarduerak, Kapulana bat Zintzilik, Brasil eta Mozambike Programetako garapenerako hezkuntza jarduerak, First Lego League, Africa Basque Challenge, denetariko jendeari zuzendutako hitzaldiak, gure kooperatibei nahiz inguruneko ikastetxei zuzendutakoak, argazki erakusketak, dokumentalak eta kooperatiba arteko lasterketak. Nabarmentzeko modukoak dira, baita ere, “kooperatibismoan aditua” tituluaren parte hartuz egiten diren jarduerak, ekonomia solidarioa garatzeko kudeaketa ekonomiko eta sozialari buruzko masterra eta boluntarioek ekonomia solidarioan diharduten beste eragile batzuei ematen dieten laguntza teknikoa.

“Gure prestakuntzarekin eta parte hartzeko gogoarekin egiteko kapaz izango gara: horixe izango da gure gizarte autokudeatua.”

Arizmendiarrjeta



3. Helburua

Mundukideren gizarte eraldaketarako hezkuntzaren helburua, berez, Mundukideren hiru balioetako batetik dator, zeinean honelaxe definitzen baita eraldaketa soziala:

ERALDAKETA SOZIALA: Mundukidekoon xedea eraldaketa da, pertsona eta gizarte justuagoak eta arlo guztietan autokudeaketara emanagoak lortzeko bidean; baita genero harremanen arloan ere. Ikuspegi horretatik, autonomiak berebiziko garrantzia du pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte eredu izan nahi duen erabaki ahal izateko.

Hortik abiatuz, Mundukideren gizarte eraldaketarako hezkuntza proposamenaren helburua eta ekarpena zera da: **hegoaldeko lankidetzaren programen eta gure ingurunean egindako jardueren artean orain arte zegoen marra lausotzen lagunduko duten ikaskuntza eta eraldaketa sozialerako espazioak ahalbidetzea.**

Hau da, **hausnarketa, ikaskuntza eta ekintzarako esperientziak ahalbidetzea, errealitate globalak eta horien toki espezifikotasunak hurbiltzeko, eraldaketa sozial kritiko eta globala bultzatzeko, Arrasateko ingurune hurbiletik harago, gizarte justuago, solidarioago eta autokudeatuagoak helburu.**

Orain arte, lokarri nagusiaren oinarria zera izan da: Mondragon esperientzia kooperatiboaren esperientzien, baliabideen eta jakintzaren trukea, izan ere, hori beti egon da presente Mundukideren programetan. Proposamen honen bidez, truketik harago doan pauso bat egin nahi da. Helburua da ikuspegi global eta tokiko batetik lan egitea, erakunde aliatuen bisioa eta pentsamendua ekarri, pertsonen gizartearekiko eta gure ingurunearekiko duten erantzukizuna ikuspegi global batetik sustatzeko.

“Guretzat garapen ekonomikoa ez da xedea, bitartekoa baizik. Orain arte herriari egin diogun ekarpena, esperientzia kooperatibo hau izan da; aurrerantzean, berriz, garapen komunitarioa eskaini beharko genuke.”

Arizmendiarrjeta





“Mundua ez zaigu eman soilik kontenplatzeko, eraldatzeko baizik”

Arizmendiarrjeta

4. Mundukideren GEH proposamena elikatzen duten ikuspegi eta elementuak.

Atal honetan, hurbilketatxo bat egingo dugu zenbait ikuspegi eta dokumentutara, kontuan harturik ikuspegi eta dokumentu horiek direla Mundukide elikatzen dutenak, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren abialekutzat hartzen dituenak eta GEH proposamenaren oinarrian daudenak.

Aipatu dugunez, Mundukideren substratuan, zalantza barik, **Arizmendiarrietaren eta Mondragon esperientzia kooperatiboaren lehen sortzaileen pentsamendua dago**. Horien abiapuntuko analisiak eta beren esperientzia eta testuei lotutako pentsamenduek leku nabarmenean jartzen dute hezkuntza, hezkuntzatik eraldaketa sozialean eragiten baita.

Hori hala, Mondragon esperientzia kooperatiboaren hastapenetatik landu da hezkuntza. Enpresa eta gizarte demokratikoago eta autokudeatu bat sortzeko amets horretan, lehen ekintzen artean bat, hezkuntza kooperatibak sortzea izan zen. Hori dela eta, Mondragon esperientziaren bihotzean bertan, gaur egun Mondragon Unibertsitatearen fakultate direnen sorrera dago (ez da harritzekoa enpresa eta gizarte autokudeatuago eta justuago bat sortzeko beharrak nagusi izatea; hala, enpresa gaiei buruzko hezkuntza ematen zen, eskola politeknikoari lotutakoa, ingeniari-tza, enpresa zientziak eta irakasle ikasketak, zeren eta haurrak hezteaz arduratuko ziren pertsonen prestakuntza zutabe bat baitzen bestelako gizarte justuago bat lortzeko).

Aldaketen eragile den hezkuntza horren ikuspegitik hurbiltzen gara, hain zuzen ere, GEHra. Hau da, ikuspegi kritiko batetik abiatuz, hezkuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonen lan mundua eta gure ingurunea eraiki eta eraldatzeko tresnak eskuratzen dituzte.



Konfiantzaren pedagogia

Gertuko ekarpenekin jarraituz, esan dezagun 2009. urtean foro bat sortu zela Mondragon barruan. Bertan parte hartu zuten Arizmendi Ikastolak, Mondragon Unibertsitateak eta haur psikologian aditu ziren pertsonak, hala nola Rafael Cristobalek, gizarte aldakor, globalizatu eta kultura anitzeko baten beharrei erantzuteko “eskolak” zer aldaketa egin behar dituen birpentsatu nahian. Hots, nola aldatu behar den eskola, bertatik ateratzen diren pertsonak libreki eta autonomoak izan daitezen, eta pertsona kooperatibo bihurtu daitezen.

Hausnarketa horretatik abiatuz sortu zen “Konfiantzaren Pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa” liburuak jasotzen duen marko propioa, pertsonok, ikasi ahal izateko, geure buruan, gure kideengan eta gure ingurunean sinetsi behar dugulako premisan oinarritzen dena.

Ikuspegi hori Mundukiderekin lan egiten duten eta hurrengo atalean xehatzen diren publikoetara lekualdatuz, beren buruarengan, beren lankideengan (kooperatiban) eta ingurunean konfiantza edukiz aldaketak eragiten eta gizarte justuago bat sorrarazten duten pertsonen lagun egin nahi diegu.

Mendeberri

Gertuko ekarpena egiten digu ere Mondragon Unibertsitateak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren arloan. Unibertsitate kooperatiboa izanik hauek dira haren balioak: Lankidetzeta eta elkar-lankidetzeta; berrikuntza; parte-hartzea; gizarte erantzukizuna; Pertsonaren garapena gizarte eraldatzen laguntzeko.

2000 Mondragon Unibertsitateak (MU) Mendeberri proiektua egin zuen eta 2014-2015 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateak hezkuntzaren etorkizuneko lerroei buruzko hausnarketa eta azterketa prozesu bati ekin zion: MENDEBERRI 2025. Prozesu horren ondorioz proposatutako hezkuntza-ereduak etorkizuneko profesionalen heziketan jartzen du arreta, baina baita, horrez gain, norbanakoaren garapenean ere. Eredu honetarako, 6 ardatz identifikatu ziren, MU ko tituludunek lortu beharreko helburu gisa: Munduko herritarra; identitatea eta helburu pertsonalak; ikastun malguta; ikastun aktiboa; komunikatzailea eta komunikazioaren bideratzailea; kooperatiboa.

Unibertsitateak ikasleengan eta profesional gisa izango duten etorkizunean arreta jartzen jarraituko du, baina ikuspegi integralago batetik, pertsona erdian jarriz. Era berean, testuinguruaren irakurketa ere zabaldu egiten da, gaur egun, lan esparrua ez da unibertsitate-prestakuntzaren xede bakarra, gizarte eta mundua zentzu zabalean ere hartzen baititu aintzat.

Mundukideren GEH propioaren lanketarako elementu interesgarriak jaso ditzakegu MUREn proposamen honetatik, hala nola, pertsona erdian jarri eta honen garapena gizarte eraldatzen laguntzeko bideratu nahi izatea, gizarte eta mundua zentzu zabalean ulertuz.

MSTren metodologiak

Mundukiderentzat inportantea da gure aspaldiko kidea den Brasilgo Lurrik gabeko Nekazarien Mugimenduaren prestakuntza prozesuetatik ikastea. MSTk ibilbide luzea egingo du nekazaritza arloko hezkuntza herrikoi eta alternatiboan, eta txandakako eskolen metodologia da, hain zuzen, une honetan berreskuratu nahi duguna. MSTren txandakako eskolen ikaskuntza metodologiak eta dimentsioek ikasteko esparru oparoa osatzen dute. Hori dela eta, gure prestakuntza proposamenetan, eskola denbora – komunitate denbora txertatu dugu, halako metodologiaren bidez lurraldearekiko interakzioa handitzen delako eta prestakuntza prozesuan zuzenki sarturik ez dagoen gainerako komunitatera ikaskuntza kolektiboa zabaltzeko aukera hor dagoelako.



Paranako Emakume Eskolaren eta Brasilgo Kooperatibak Kudeatzeko Teknikari (KKT) ikastaroaren kasu azterketak inspirazio iturri izango dira, batetik, eskola denborako eta komunitate denborako ikaskuntzak praktikan jartzeko, eta, bestetik, hezkuntza herrikiokiak edo nekazaritza hezkuntzak berezkoak dituen beste elementu batzuk txertatzeko ikuspegia izateko.

Metodologia honek, leku fisikoak txandakatzeaz gainera, beste printzipio batzuk jartzen ditu oinarrian; horien artean: bizitzak/aktibismoak prestakuntza arautuak adina erakusten dute; lan esperientziatik, borroketatik, parte hartzetik eta abarretik ikasi egiten da. Segundo Begnamik (2003), txandakatzearen kontzeptua definitzeko, esaten du ikaskuntza eta prestakuntza prozesu etengabe bat dela, jardueren etenean eta denboraren eta espazioen segida integratuan. Prestakuntza prozesu oro “Behatu, Hausnartu eta Ekin/Eraldatu” hirukoan oinarritzen da.

Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Zalantzarik gabe, Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) markoari ere arreta handia jarri behar zaio, marko hori baliagarria izango baitugu erdietsi beharreko horizontera iristeko gida gisa. Gainera, marko horretatik lotu ahalko ditugu kooperatibak (enpresa sozialak) eta garapen komunitarioa. Gure inguruneke kooperatiben DNAn bertan ikuspegi hori txertatuta badago ere, helburuen lanketan GIHak lortzearen erantzunkidetasuna enpresena izaki, kooperatibak horretarako eragile aipagarriak dira.

Hori hala, hauxe da GIHetara hurbiltzen gaituen hasierako premisa: ekonomia sozialak rol garrantzitsua bete dezake GIHen inplementazioan, bai maila globalean bai tokikoan. Kooperatiben berezko printzipioekin, alegia, elkartasunaren, antolaketa demokratikoaren, kudeaketan parte hartzearen eta eraldaketa sozialaren printzipioak erakunde eta enpresetan txertatuta, kooperatibok badaukate gaitasunik negozioiak egiteko ohiko moduan alternatiba ekonomikoak sortzeko, eta hala, maila globalean ez ezik tokikoan ere aldaketak eragiteko.

Demokrazian, elkartasunean eta kohesio sozialean zentratzen diren balio eta printzipio horiek aintzat hartzeko moduko ahala daukate desigualtasunak murrizteko eta erdigunean kapitala jartzen duen eredu kapitalista eraldatzeko, pertsonen zerbitzura egongo den ekonomia bat helburu, non pertsona, bere lanaren bidez, guztiaren ardatza izango den. Adibide gisa ikus dezakegunez, 2030 Euskadi Basque Country Agenda izenekoan, GIHen “lokalizazioan”, 45. helmuga, hain zuzen ere, “ekonomia sozialeko enpresak sustatzea” da, helburu hauekin: hazkunde ekonomiko iraunkor, inklusibo eta sostengarria, enplegu bete eta produktiboa eta pertsona guztientzako lan egokia. Hain zuzen ere, Mundukidek ekarpen hori egitea du xede, lan egiten duen herrialdeetako ekonomietan.

Ikuspegi horretatik, Mondragoneko kooperatibak ez dira hazkunde ekonomikorako eta enplegua sortzeko tresna hustzat hartu behar; kooperatibon gaitasun eraldatzailea balioetsi behar da. Eta GIHei aukera ematen dute gurekin lan egiten duten erakunde kideekin batera (izan kooperatibak, izan beste herrialde batzuetako egitasmo sozioekonomikoak, izan mugimendu sozialak, etab.) kontzeptu horiek maila globalean eta tokikoan lantzeko. Halatan, Arizmendiari-riaren eta Mondragoneko esperientzia kooperatiboa sortu zuten lehen pertsonen hasierako ideia berreskuratuko dugu, hots, batetik, erantzukizunaren ideia, eta bestetik, enpresa kooperatiboaren xedea, enpresa bera baino, bitarteko bat delako ideia, eraldaketa sozialaren horizontera iristeko, GIHak betetzeko, gizarte autokudeatuago eta justuagoak lortzeko.

(H)ABIAN

Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren esparru estrategiaren dokumentutik, zalantza barik, hainbat elementu atera daitezke, eta atera behar dira, Mundukideren GEH estrategia propioa lantzeko orduan.



Estrategian xehatzen diren indar ideiak partekatzen ditugu, eta horretarako hiritartasun global sostengarri eta bidezkorako alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituzten subjektuei laguntzen diegu, honako hauek sustatuz eta indartuz: GEHaren ikuspegi politiko eta pedagogikoak, eskubideak, tokiko ikuspegia eta ikuspegi globala, eragile guztien erantzunkidetasuna (gure kasuan, autokudeaketaren paradigmatik abiatuz); gainera, etengabeko ikaskuntza da gure erreferentzia.

Proposatzen diren ekintza, programa eta ibilbideek kontuan izan beharko dute hezkuntza eraldatzailearen ikuspegi hori, eta hiritartasun globala garatzeko gaiak integratzeaz gain, ulertu beharko dute eraldaketa sozialerako hezkuntzak egon behar duela (lehen aipatutako ikuspegiak egiten duten bezala) aldaketa sustatzen duten metodologia eta ikuspegietan oinarriturik, 5. belaunaldi honen garapenerako hezkuntzak berezkoak dituen ikuspegi pedagogikoak txertatuz.

Genero ikuspegia

Jakinik gizarte patriarkal batean bizi garela eta gainerako gizarteak ere halakoak direla, genero ikuspegitik gerturatu beharra dago aldatu nahi dugun errealitate horretara, gizonen eta emakumeen arteko desegualtasunak mahai gainean jarritz. Hau da, kontuan hartu behar dira gure gizarteetan emakumeek eta gizonek dauzkaten aukera desberdinak, bai eta gizonen eta emakumeen artean dauden botere erlazio desorekatuak ere; hori dela eta, gizonei eta emakumei esleitzen zaizkien rol eta estereotipo desberdinak gainditu egin behar direla nabarmendu beharra dago.

Gizarte autokudeatu eta bidezko berrietarantz jotzeko ibilbideen proposamenean, genero analisia aplikatu behar dugu, eta birbanaketa neurri eta ekintzak proposatu, ekitatea lortzen eta desegualtasunak desagerrarazten laguntzeko.



5. Xede publikoa / aliantzak

Datozen urteetarako jardute ildoak zehazteko, esperientzia propiotik abiatu behar da, alegia, orain arte egindako jarduera, proiektu eta programetatik, eta horietatik guztietatik ateratako ikaskuntzetatik; horretarako, arreta handiagoa jarriko da bai hausnarketa eta ekintza prozesuetan, bai denboran eta proposamenean zabalagoak diren eraldaketa ibilbideetan. Hori hala, hiru xede publiko zehaztuko ditugu, eta xede publiko horien arabera formulatuko ditugu ondoko jardute ildoak.

Hona hemen MUNDUKIDEk lan egiteko zehazten dituen lehentasuneko hiru multzoak:

A.- INGURUNE KOOPERATIBOA – LAN ELKARTUKO KOOPERATIBAK – EKONOMIA SOZIAL/ HERRIKOIKO EGITASMOAK

Lehentasuna emango zaie Mundukiderekin lanean luzaroen jardun duten eta Mundukiderekin konpromisorik sendoena erakusten duten kooperatibei, izan ere, kooperatiba horietako pertsoneri beren egunerokotasunetik arlo globalarekiko konpromisoa handitzen lagundu nahi diegu, Arizmendiarrietak aipatzen zuen eraldaketa sozialerako artikulatzen den pertsona autokudeatua eraikitzeke bidean lagun eginez. Era berean, Hegoaldeko herrialdeetako kooperatibetako eta garapen soziokomunitarioko egitasmoetako pertsonen errealitatea are gehiago gerturatu nahi dugu, joan-etorriko kanalak ezarriz, helburu eta agenda komuneke kontzientzia sortuz, hau da, agenda global bereko tokiko errealitateei erantzuten dieten hiritar globalak helburu.

Horretarako, eraldaketa sozialean ibilbide luzea egina duten eta gaiarekiko sentibera agertzen diren kooperatibekin batera lan egingo dugu, izan beste latitude batzuetan gurekin lan egiten dutenekin, izan Mondragon esperientzia kooperatiboarekiko harremana dela-eta Mundukidera hurbiltzen direnekin.

B.-HEZKUNTZA INGURUNEA

Multzo honetako erakunde batzuk aurreko multzokoak dira, baina ez denak. Gainera, atal honetan hezkuntza lana jasoko da, ez bakarrik kooperatibistengana eta kooperatibara iristeko, baita hezkuntza zereginari laguntzeko eta mundu hobea bat ekarriko duten aldaketa eta eraldaketak eragiteko gai izango diren pertsona solidarioak sortzeko ere.



Lehenago ere lan egin izan da inguruneko hezkuntza erakundeekin, hezkuntzaren etapa desberdinetan lan egin ere, bai unibertsitatean bai aurreko etapetan nahiz lanbide heziketan. Mundukidek aldi berri honetarako egiten duen apustua zera da: maila biekiko harremanean aurrera egitea, Arizmendi Ikastola eta Mondragon Unibertsitatea erakunde kide nabarmenak direla.

Bi erakunde horiekin batera egingo diren ekintza eta ibilbideen bitartez, aldaketa eragile izango diren ikasleak sortu nahi dira, alegia, begirada kritikodun ikasleak, gizarte autokudeatu, bidezko eta solidarioa lortzeko bidean protagonistak izango direnak; **pertsona kooperatiboak**, azken finean.

C.-GIZARTEA ORO HAR (Hego Euskal Herria)

Bai pertsona kooperatibistekin bai ikasleekin eginiko ekarpen eta ibilbideek gizartera –oro har– iritsi beharko lukete. Aspektu hori ondo zainduko da, batetik, egiten diren ibilbide guztietan zati bat komunitateari –zentzurik zabalenean– itzul dakion, eta, bestetik, komunitateak berak eraldaketa sozialerako prozesuetan murgiltzeko ekina izan dezan.

Zati hori inguruneko mugimendu sozialekin batera gauzatuko da, ezagutza eta elkarrenganako laguntza sareak ahalbidetuz.



6. Jardute ildoak

Lehentasunezko hiru xede multzoak zehaztu ostean, 2018-2021 aldirako ekintzak proposatuko ditugu.

Hausnarketa, prestakuntza eta ekintza ibilbideak:

Aldi honetarako, bi programa pilotu proposatzen dira.

Alde batetik, **prestakuntza, ekintza eta hausnarketa ibilbide bat** landuko da epigrafe honen lehen puntuan zehaztutako kooperatibetako kooperatibistekin batera.

Bi urteko ibilbide honek talde eragileak izango ditu prozesuan parte hartzen duten kooperatiba bakoitzean. Talde horiek hezkuntza prozesu batean parte hartuko dute, munduan gertatzen diren desigueltasun eta injustizia egoeren ikuspegi kritikoa sustatuz, eta ekonomia sozial eta solidariotik egoera horiei buelta emateko lantzen ari diren alternatibetan fokua jarritz. Talde horiek, gainera, hausnarketa hori sustatu eta beren kooperatiba barnera eramango dute; horretarako, kooperatibei oro har planteatuko zaien erronka bat landu eta eskuratu beharko da, Mundukiderekin lanean diharduten Hegoaldeko kooperatiben edo egitasmo ekonomikoen esperientziaren bat baliatuz. Ibilbide horrek Hegoaldearekiko topaketa eta elkarrizketa elementuak edukiko ditu, joan-etorriko esperientzia eta ezagutzak ahalbidetuko ditu, eta ezagutza horiek hezkuntza eta dibulgazio materialetan bilduko ditu etorkizunerako.

Ibilbideotan, eskola ibiltarien metodologiak eta Brasilgo lurrik gabeko nekazarien mugimenduaren komunitate denborak hartuko ditugu oinarri gisa; baita parte hartze metodologiak eta etengabeko ikaskuntzako metodologiak ere, Arizmendik eta MUK lagundutako proiektuetan oinarrituz.

Ibilbideari amaiera emateko, ezagutza partekatzeko eta landutakoaren irismena zabaltzeko jardunaldiak egingo dira. Parte hartu duten talde guztien ordezkaritza egongo da jardunaldietan, izan Mondragon inguruneak izan Hegoaldekoak.

Bestalde, aipatzekoak dira **Arizmendi eta MUko ikasleei zuzendutako hezkuntza jarduerak**. Jarduera horietan, irakasleekin batera lan egingo da curriculumean Garapen Iraunkorreko Helburuekin eta beste expertise arlo batzuekin lotutako gaiak txertatzeko, hala nola asoziazionismoa, parte hartze soziala, etab. Gai horiek sarbide izango dira hezkuntza



erakundeetako gradudunaren profilaren eraikuntzari ekarpena egiteko, eta erabiliko den metodologia, berriz, parte hartzeko izango da, eskubideen ikuspegian oinarrituz eta tokiko ikuspegia – ikuspegi globala sustatuz. Aipamen berezia egingo zaio emakumeen eta gizonen kondizioaren eta posizioaren desorekari; baita sostengarritasunaren alorretik datozen alternatibei ere.

Lan hau hezkuntza erakunde irakasle eta eragileekin batera egingo da, ahalik eta pertsona gehien inplikatur; gainera, lana egokia izatea eta hezkuntza zentroek, eraldaketa sozialaz duten ikuspegiaren barruan, beren gain hartzea nahi da.

Ildo horretan, Mundukidek Hezikoopi eta Arizmendiren proiektu pedagogikoari egiten dien ekarpen konkretua zehazteko lana egingo da.

Hiritarrak mobilizatzeko eta lehenetsitako gaiak jendarteratzeko kanpainak:

Arlo honetan, gaiak jendartean oro har zabaltzeko ekintzak egiteaz gain, aipaturako hezkuntza erakundeetako ikasleen artean eta Mundukiderekin lan egiten duten kooperatibetako pertsonen artean zabaltzekoak ere egingo dira. Atal honetan, hauek izango dira lehenetsitako gaiak: garapen Iraunkorreko helburuak (GIH) oro har, eta MUNDUKIDEK ondoen ezagutzen dituenak bereziki; ekonomia sozial eta solidarioa; emakumeen parte hartzea ekonomia solidarioko egitasmoetan, etab.

Publiko zabalagoari begira, jarduketa hauen helburua da munduan diharduten sistemen ikuspegi kritikora hurbiltzea, eta ohartzea nola sortzen diren desigualtasunak eta bidegabekeriak; baita aldaketarako egitasmoak proposatzea ere, desigualtasun horiek desagerrarazten laguntzeko. Horretarako, jardunaldiak eta hitzaldiak egingo dira, eta propio sortutako materialak zabalduko, izan indibidualki edo izan gai horietan lanean diharduten beste langile batzuekin.

